




ZAILA

LEKORNE

# Baigura



Distantzia	Desnibela	Iraupena	Tipologia	Zedarriak
9,2 km	580 m	3h30	Itzulia	PR seinaleak

Hazparnetik hartu Donapaleuko eta Donibane Garaziko norabidea (D22). Lekuinen utzi ezker Donapaleuko bidea eta segi zuzen Lekornera buruz eta gero Heletara buruz (D22) 8 km-tan. Heleta aitzin den biribilgunean, itzul eskuin aisialdi lekura buruz (D119). Utzi autoa 2,5 km urrunago, errepidearen ezkerreko aparkalekuan Baigurako aisialdi gunearen parean.

GPS datuak : UTM : 639280 - 4796588 Lat/Long : 43.30922/-1.28259

**B**aigurako aisialdi gunetik abiatzen den kirol-itzuli honetan zuzenki iganen zara Ipar Euskal Herriko mendi enblematikoetarik batera, eta ikuspegi zabal-zabala ukanen duzu gainetik. Oihanetan eta goratasuneko soropiletan gaindi ibiliko zara, eta Kurutze mendi gainetik itzuliko xendra batetik beheiti, sekula ere ez enoatuz.

## 1. ZATIA > Aisialdi gunetik Buztingorri bordara

UTM : 639280 - 4796588.

Aisialdi gunearen parean den aparkalekutik (300 m), segi etxe baten ondotik abiatzen den xendra (abiapuntu seinalea). Iragan sigi-saga eta igan xendratik. Oihanttoaren ondotik, ez joan ezkerrean den bidexkatik baina segi zuzen. Pentze zerratuaren izkinan, utzi ezkerreko xendra zuta eta segi pareko xendra oihanean gaindi. Ibarxka hezea zeharkatzen du, beste aldetik igaten, eta laster oihanetik ateratzen. Segi mendi mazelan, xendra on batetik (Urtsu ageri da). Iragan ezazu erreka eta ezkerreko irtengunetik (ez joan eskuineko xendratik), seinaleak dituen xendrarra helduko zara: ezkerretik joan zaitez xendran gaindi. Errekaren bi adar iragaten ditu eta Pagazaharretako goi-ordokitik ibiltzen.

## 2. ZATIA > Buztingorri bordatik Erregeluko arroketa

UTM : 639035 - 4795883.

Errekara laburki jautsi ondotik (420 m), bidegurutzean hauta pareko xendra. Baigurako bidea zeharka, eta igan parean duzun bide onetik (urkia). Goi-ordoki belartsuan igan zuzen belarrean bordaren gainaldetik (Buztingorri). Ezagutza-bidexkaren bidegurutzeari ez kasu egin (501 m) eta igan beti zuzen pagadira buruz. Beste bide bat zeharkatu ondoan, xendra eskuinera doa, beti zut, kasko arrokatsura buruz. Bi bihurgune zerratu badira arbolen azpian, eta arroka mokorren artetik iragaten da.

## 3. ZATIA > Baigurako azken igoera


UTM : 638563 - 4795207.

Arteka ttipitik iragatean (740 m), Baiguraren kaskoa ikusiko duzu. Hortik goiti bidexka zuzen igaten da mendiaren mendebaldeko isurkitik. Errepidearen bihurgune zerratu baten gainaldetik iraganen zara. Azken bihurgune zerratuan, igan belarrean ezker eta segi mendi kaskoa eskuinera buruz, orientazio mahaitik eta harrespiletatik pasatuz. 50 m urrunago, iragan igorgailuen eskuinetik, eta segi errepidea eta bidea azken antenataraino. Ezker, igan itzazu azken metroak Baigurako kaskoraino heltzeko.

## 4. ZATIA > Erregelutik eta Kurutze kaskotik iragatea

UTM : 638477 - 4794478

Baiguratik (897 m) itzul zaitez orientazio mahaira, eta zoaz Erregelu kaskoraino, mendiaren ezkerretik. Geldialdia



egin ondoan, utzi Erregelu (865 m) ekialdeko kasko luzetik. Hastapenean zuta da eta zaila, baina gero xendra Kurutze mendi kaskoan aitzina doa, leku aski ordokian (ikuspegia Zuberoaren gainera). Eta eskuin, hego isurkira doa, eta luzaz jausten. Laugune belartsuan, egon pareko bidean, xendra laster ezker itzuliko da eta beste ibilbide bat segituko du mendi mazelan.

## 5. ZATIA > Bordako lepotik Buztingorri bordara

UTM : 640114 - 4794655

Hel zaitez lepora (604 m), bada borda bat lurren, orientazio mahaia eta Piknika mahaia. Hondakinen gainaldetik iragan zaitez ezker, xendra belarrean sartzen da eta bi aldiz ezker itzultzen; ezagutza bidexkara heltzen da, mendi mazelan, eta gaikako taulez apaindua da. Erreka iragan ondoan ("iturriak eta erreka" taula), hauta ezkerreko xendra Y formako bidegurutzean. Xendra oihan ederretik iragaten da eta poliki jausten soropiletara. Beti atxiki aitzinean bistakoa duzun bidea, Buztingorri bordaren gainaldeko bidegurutzera heldu arte.

## 6. ZATIA > Aisialdi gunera itzultzea

UTM : 638994 - 4795754

Bidegurutzetik (501 m), jautsi belarrean eskuin, eta iragan bordaren ondotik (parapente eskolaren gunea) eta joatean iragan zinen bidea berriz atzemanen duzu. Baigurako errepidera itzuliko zara, eta berriz iganen laburki Pagazaharreta goi-ordokira. Bi erreka burdintsuak zeharkatu ondoan, eskuin hartu oihaneko xendra; aisialdi lekura itzuliko zara.

### INTERESGUNEAK

#### ❖ Aisialdi gunea (0 km)

Kanpoko jarduera franko egin daitezke Baigurako aisialdi lekutik partituz: ibilaldiak bistan da, baita ere trailak, parapentea, mendiko bizikleta, mendiko trotineta edo eskalada. Artzaintza ere Baigurako eragile nagusia da, eta beharrezkoa da elkarbizitza egokia egitza denentzat goxo izan dadin. UTM : 639251 - 4796663

#### ❖ Sai arreak (3,2 km)

Sai arreak arroka gainean kokatuak dira edo zeruaren hegalka ibilki; har-rapari handi horiek ikusiko dituzu Baiguran. Hilikiak bakarrik jaten dituzte, eta aire korrante beroei jarraikiz lekuz aldatzen dira; parapentez ibiltzen direnen hegaldi-aholkulariak dira!

#### ❖ Harrespilak (3,8 km)

Baiguran eta Euskal Herriko mendi frankotan harrespilak badira, hala nola, biribilean ezarriak diren harriak. Duela 3 000 urteko hilobiak dira, orduko artzainek hilen hautsak ezartzeko egin zituzten. UTM : 638569 - 4794642

#### ❖ Zohikaztegiak eta landare-intsektujaleak (8,4 km)

Xendren behereko aldean, azaleko urak etengabe isurtzen dira eta zohikaztegia sortu dute. Goroldioak eta esfagnoak lur harroa estaltzen dute, baina drosera ere ikus daitezke: babestua den landare ttipi bat da, intsektujalea. UTM : 639075 - 4795576

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Baigurako aisialdi gunea, haurrendako jokoak, jarduerak, ostata, jatetxea  
UTM : 639251 - 4796663

- 3,8 km: Baigura, orientazio mahaiaik  
UTM : 638580 - 4794660

- 6,9 km: Bordako lepoa, orientazio mahaia, piknika mahaiaik  
UTM : 640114 - 4794655



# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzema bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauek: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarriztuetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa: Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza  
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza  
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza  
+33(0)5 59 56 03 49

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoekin.